

GUKA

**MALETA
BETE BIDAIA**





Euskararen plaza gara, herriaren irudia eta komunitatearen ahotsa

B
BALEIKE

K
KARKARA

erlo
ERLO

MAX
MAXIXATZEN

KH
UROLA KOSTAKO
HITZA

UZ
UZTARRIA

ZH
ZARAUZKO
HITZA



**HEDABIDEKIN
ERE BAI**

MUNDUA, DESKUBRITZEKO



AITZIBER ARZALLUS

Ez dizuet gezurrik esango: inbidia latza pasatu dut eskuartean duzuen argitalpena egiten jardun naizen bitartean. Zenbat bidaiatzeko modu, zenbat leku ikusgarri, zenbat abentura eta zenbat jende ausart. Erakutsi didate aski dela gogoia izatea, eta oztopoak oztopo, nahi duenak egin egiten duela.

Dirurik ez daukazula? Lan eginez bidaiatu dezakezu, edo boluntario joanda. Ume txikiak dituzula? Eta zer? Urte batzuetan hor zehar ibiliz ikasiko dutenak lau hormaren artean sartuta ikasiaraziko dietenak baino gehiago balioko die ziur asko. Bakarrik joateko gogorik ez dakazula? Joan taldean. Hegazkina hartzeak beldurra ematen dizula? Trenz edo autoz ere deskubritu dezakezu mundua, edo zergatik ez, baita bizikletaz edo oinez ere. Eta batek baino gehiagok nabarmendu duten moduan, tokiak, kulturak eta jendea ezagutzeko

bidaiaria horietan, zeure buruak emango dizkizuu ustekaberik handienak, kanpokoak ikustera egindako bidaiaria askok barrukoak ikusteko balio izaten dutelako.

Hurrengo orrietan eskualdeko herritarrek egin dituzten hainbat bidaiaria handi eta ikusgarri laburbildu ditugu, eta horietako zenbait bideoz ikusteko aukera ere izango duzue Udako GUKA saio berezietan, ostiral iluntzero Erlo Telebistan eta Baleikeren, Maxixatzenen, Karkararen, Uztarriaren eta Zarauzko Hitzaren webguneetan.

Eta kanpora joaterik ez duzuenok bertatik bertara egiteko moduko hainbat plan ere topatuko dituzue azken orrialdeetan. ■

**Zenbat bidaiatzeko modu,
zenbat leku ikusgarri,
zenbat abentura eta
zenbat jende ausart.
Nahikoa da gogoia izatea**

4-7

Azpeitiko Halcon Bidaiak

8-9

Itsasoetan barrena

10-11

Modako hamar leku

12-13

Bizikleta gainean

14-17

Motxila hartuta

18-21

Zer diote herritarrek?

22-23

Gomendioak

24-25

Objektiboaren atzetik

26-27

Lagundu eta bidaiatu

28-29

Alberdi Tours Riviera Maya

30-31

Jubilatu eta erromes

32-33

Lan eginez, bidaiatu

34

Biran

35

Begi Bistan

36

Iraurgi Berritzen

37

Dona Doni

Argitaratzailea:

Urolako Komunikazio Taldea

Tirada: 7.750 ale



Enpresa laguntzaileak:



DANOBATGROUP



KEZKA BAKARRA BIDAIAZ GOZATZEA

Azpeitiko Halcon Bidaiakeko Maite Lazkano duela bederatzi urte hasi zen taldeko bidaiak antolatzen. Urtean bat egiten zuen lehen, eta 11 egingo ditu aurten; azpeitiarrak apenas joaten zen lehen, eta hamarretik zortzi azpeitiarrak izaten dira orain. Arrakastaren gakoak ulertzeko, taldeko bidaietan parte hartu duten hiru bezerok eta Lazkanok beraien esperientziak azaldu dituzte.

Jerusalemera, amarekin



Arantxa Luluaga (Lizartza, 1972):
"Amak Jerusalemera joateko gogoazeukan, eta Maitek bidaia antolatu zuenean,

parte hartzea erabaki genuen. Duela bost urte izan zen, amak 75 urte zituela. Dozena bat egun izan ziren, eta 25 bat lagun joan ginen hara, gehienak azpeitiarrak, baina bazen Bilboko eta Gasteizko jendea ere. Oso talde jatorra tokatu zitzaigun.

Lehen bi egunak Tel Aviven egin genituen, Israelgo hiriburuan, eta gero joan ginen Jerusalemera. Han ginela, Mikel Aiestaran kazetaria etorri zitzaigun hotelera, eta hark Jerusalemeko egoera zer-nolakoa zen azaldu zigun. Ikusi genituen Jerusalemgo alde zaharra eta berria, baita Biblian azaltzen diren hainbat toki ere: Belen, Nazaret, Haifa eta abar. Kultura aberatsa eta interesagarria dituen herrialdea iruditu zitzaidan, eta esperientzia zoragarria izan zen, guztiz gomendagarria".

Maite Lazkanok (Azpeitia, 1972) 25 urte darmatza Azpeitiko Halcon Bidaiakeko buru izaten; taldeko bidaiak antolatzen, baina, geroago hasi zen. "Aspalditik neukan gogoia, baina orain dela bederatzi urte eman nuen pausoa". Une aproposa iruditu zitzaion. "Langile izatetik negozioaren jabe izatera pasatu nintzen, eta ordu-rako semeak pixka bat hazita nituen. Izugarri gustatzen zait bidaiatzea, eta ikusi nuen taldeko bidaiak antolatzeke momentua zela, modu horretan neuk ere bidaiatu ahal izateko". Bazuen taldeko bidaiak antolatzen zituzten beste agentzia batzuen berri. "Bilboko lagun batzuek antolatzen zituzten, eta ondo zihoakien. 'Nik zergatik ez?', pentsatu nuen, eta antolatzen hasi nintzen".

Lehendabiziko taldeko bidaia Iranera antolatu zuen. "Erakuslehoan jarri nuen kartela, eta azpeitiarrak ia ez zen animatu; beno, bi bakarrik. Iranera joateko ilusioa nuen, aspalditik neukan



ametsa zen, eta ezagutu ere egiten ez nuen jendearekin joan nintzen: gasteiztarrak, bilbotarrak...". Bigarren urtean, Uzbekistanera antolatatu zuen bidaia, eta berriz ere azpeitiarrak ez zen animatu. "Egia da ez zirela oso leku ezagunak, baina...". Gasteizko eta beste hainbat lekutako herritarrekin osatzen zuen taldea, Halconen izenpean aritzen denez, kate horretako beste bulegoetan ere egiten baitzuten berak antolatutako bidaien eskaintza.

Errepikatu egiten dute

Baina Lazkano ez zegoen amore emateko. "Jarrantzea erabaki nuen, urtero-urtero bidaia berriak antolatzea, eta pixkanaka-pixkanaka hasi zen jendea animatzen". Bai animatu ere; aurtengo eskaintzen katalogoari begiratzeaaski da horretaz ohartzeko. Martxoaren hasieran argitaratu zuen katalogo hori, aurten egiteko taldeko 11 bidaiarekin, eta dagoeneko beteta ez daudenetan, leku gutxi batzuk baino ez dira gelditzen. "Bidaia horietara joango garen gehien-gehienok azpeitiarrak gara, eta azpeitiarrak ez direnak ezagutzen ditugu aurreko bidaietatik. Namibian zortzi lagun izan gara,



Namibiatik bueltatu berri



Ainhoa Izagirre
(Azpeitia, 1972):
"Apirilaren 25ean
zortzi lagun
abiatu ginen
Azpeititik,
aurreko
bidaietatik

ezagutzen ginenak denok. Namibiako hiriburura iritsi ginen, Windhoekera, eta han egin genuen lehen gaua; hiriburuak ez dauka ezer. Hurrengo egunean, Sossusvlei ingurura joan ginen, Namibiako ikur nagusia den basamortu gorri horretara. Gu zortzirok, gidaria eta txoferra, noranahiko ibilgailu baten. Han, Duna 45 igo genuen, denetan altuena; bistak ikusgarriak ziren, eta sekulako bakea zegoen, ez baitzebilen inor.

Hurrengo egunetan, gauza pila bat egin genituen: luxuko katamaran batean baleak, itsasoko lehoiak eta pelikanoak ikustera joan ginen, ostrak janez eta xanpaina edanez; itsasertzeko dunetan ibili ginen; tribu bateko kideekin egon ginen; ur jauzi bat ikusi genuen... Azken egunetan, safaria egin genuen Ethosako natur parkean. Jirafak, zebrak, lehoiak, elefanteak eta beste hainbat animalia bertatik bertara ikusteko aukera izan genuen, eta horiek liluratuta utzi ninduten.

Hamabost egunetan 3.500 kilometro egin genituen, ordu asko basamortuan barrena, eta denetarik gertatu zitzaigun: gurpil zulaketak, enbragea izoratu... Afrikan horrelakoak gertatu egiten dira. Aipatzekoa da egokitu zitzaigun gidariarekin zer-nolako zortea izan genuen; oso abenturazalea zen, inguru haietan mugitzen bazekien, eta hura gurekin ibiltzeak beste ukitu bat eman zion bidaiari".

Finlandiako Rallya, ia barrutik



Asier Bolinaga
(Bergara, 1982):
"Bergarako lagun
batzuk auto
lasterketetara
joateko ohitura
daukagu.
Normalean
furgonetetan

joaten gara, baina duela bi urte, kasualitatez jakin genuen Azpeitiko Halcon Bidaiak Finlandiako Rallyra bidaia antolatu zuela, eta animatu egin ginen. Uztailaren bukaeran bost egun izan ziren, eta denera 25-30 lagun joango ginen; euskal herritarak, kanariarrak, errioxarrak...

Finlandiakoa lau edo bost eguneko lasterketa izaten da, hainbat zati izaten ditu, eta oso garrantzitsua da mugitzen jakitea. Norbere kontura joanez gero, zaila da hori; hizkuntza bera da lehen oztopoa. Guk egin genuen bidaia, ordea, beste kontu bat izan zen. Lehenengo gaua pilotuak zeuden hotel berean pasatu genuen; autobus batek hotelean jaso eta tramo batetik bestera eramaten gintuen; eta azken egunerako hotela ere parke barruan geneukan hartuta. Irabazlea hotelean bertan zegoen, eta harekin argazkiak atera genituen, telebistakoek nola elkarrizketatzen zuten ikusi genuen, autoak kamioietan nola kargatzen zituzten ere bai... Lasterketa bukatuta zegoen, eta gu artean gozaten.

Lehen aldiz orduan joan nintzen antolatutako bidaia batera, eta esperientzia bikaina izan zen. Afizioa dagoenean, kristorena da horrelako lasterketa bat modu horretan bizitzea; luxua, behin behintzat bizi beharrekoa. Pena dut aurten ezin dudalako joan".

Teruelen (Espainia) hemezortzi, Italian 55, Finlandiako Rallyra 30 joango gara...".

Teknologia berriek eta sare sozialek bezeroengana iristeko lana asko erraztu dietela esan du. "Bidaia bat antolatzen dugunean, gutxi gorabehera jakiten dugu eskaintza hori nori bidali, bezero oso leialak ditugulako eta asko antolatu ditugun bidaien berri izateko zain egoten direlako. Bidaietara etortzen direnei beti galdetzen diet nora joango liratekeen gustura, eta nire burua beti martxan egoten da, hurrengo urtean nora joan gaitzkeen pentsatzen".

Hori bai, bidaia bakoitzak bere publikoa izaten duela nabarmendu du, eta garrantzitsua dela gutxieneko batzuk kontuan izatea. "Planaren arabera, bidaiariak profil jakin bat izan behar dute, gutxieneko baldintza batzuk bete behar dituzte. Adibidez, apirilean Namibiara egin genuen bidaiara joateko, ez zegoen atleta izan beharrik, baina beharrezkoa zen sasoian egotea; ez genituen egundoko ibilaldiak egin, baina fisikoki bidaia oso mugitua izan zen, basamortuan barrena kilometro eta ordu asko egin genituen, eta atsedean hartzeko denbora gutxi izan genuen. Joan ginen zortzi lagunok aurrez egindako bidaietatik ezagutzen genuen elkar, eta banekien ez gurela arazorik izango". Aldiz,



Italiako bidaian nahi zuten guztiak izan dira, bakoitzaren egoera fisikoa, adina edo bestelako baldintzak kontuan izan gabe.

Arazo guztiez ahaztu

Taldeko bidaien arrakastaren arrazoiak galde-tuta, garbi du Lazkanok: "Jendeak balio handia ematen dio lasai bidaiatzeari, eta dena antolatutako bidaia batek hori ematen du. Ez zaie axola izaten pixka bat gehiago ordaintzea, beren kezka bakarra etxetik pasaportearekin ateratzea izango bada. Gozatzea nahi izaten dute, herrialdeaz, gidariak kontatuko dienaz, hotelaz... Gozatu, beste ezertaz kezkatu gabe".

Zenbait tokitara joateko garaian sor daitezkeen arazoak eta zailtasunak ere aipatu ditu. "Adibidez, herrialde batzuetara sartzeko bisa eskatzen dute, eta jakin egin behar da zeintzuk diren herrialde horiek eta nola atera daitezkeen bisa". Jende iaioa badagoela dio, baina denek ez dutela horretarako astirik eta gogorik. "Bidaia-ri profesionala baldin bazara, gauza horiek kontrolatzen badituzu eta denbora asko baldin badaukazu, aurrera. Baina herritar arrunt bati buruhauste dezente eragin diezazkioke horrelako bidaia bat prestatzeak. Guretzat, berriz, eguneroko lana da". ■



Aurtengo eskaintza batzuk

Aurten inoiz baino taldeko bidaia gehiago antolatu ditu Azpeitiko Halcon Bidaiakek: martxotik abendura, 11 bidaia. Horietako batzuetan lekurik ez dago dagoeneko, baina honako hauetan oraindik bada izena emateko aukerarik:

1. Danubiko zeharkaldia

Uztailaren 16tik 23ra.

Bi lagunentzako lekua gelditzen da.

2. Finlandiako Rallya

Abuztuaren 3tik 8ra.

Lau lagunentzako lekua gelditzen da.

3. Jerusalem-Jordania

Abenduaren 2tik 12ra.

Plaza batzuk gelditzen dira.

'Iran ezagutzen' hitzaldia

Iran hobeto ezagutu nahi duten herritarrek aukera paregabea izango dute aurki. Izan ere, Patricia Almarcegui idazle ezagunak *Iran ezagutzen* hitzaldia emango du uztailaren 7an, osteguneguz, Azpeitiko Basazabal jauregian, 19:00etan hasita. Joseba Urkiola bidaietan adituak ere parte hartuko du saioan. Ekitaldia Azpeitiko Halcon Bidaiakek antolatu du, Azpeitiko Udalaren babesarekin.

Harremanetan jartzeko

✉ halconv75@halconviajes.com

📌 @halconazpeitia

📷 @halcon.azpeitia

☎ 943-81 06 73

📞 688 83 12 56

HAMAR URTE BELAONTZIAN BIZITZEN

Emilio de la Hozen ametsa zen dena utzi eta belaontzi batean hara eta hona ibiltzea, eta bi ume txiki ez ziren izan horretarako oztopo. Izar alabak hitz egin du haurtzaroko bizipenez.

Ez ohiko haurtzaroa izan zuen Izar de la Hozek (Getaria, 1999), hamar urtez belaontzian hara eta hona ibili baitzen familiarekin: Emilio de la Hoz aitarekin, Amaia Agirre amarekin eta Hodei de la Hoz anaiarekin. Emilioren aspaldiko ametsa zen itsasoetan barrena bidaiatuz bizitzea. "Ama ezagutu zuen, ideia proposatu zion, eta ez zion ezezkorik eman. Hala, belaontzia erosi eta pare bat urtez hura nola maneiatzen zen ikasten aritu ziren". Horretan zirela, Amaia haurdun gelditu zen, Izar jaio zen, eta horrek zuten asmoa alde batera utziarazi zien, baina ez luzerako. "Ume batekin abentura horretan murgiltzeak zalantzak sorrarazten zizkien, baina probatzea erabaki zuten".

Izarrek bi hilabete zituela egin zuten lehen itsas bidaia. "Egun-pasa bat izan zen, eta ikusi zuten ondo ibiltzen nintzela itsasontzian. Horrela, irteera luzeagoak egiten hasi ginen: bi egun, hiru egun, astebete... Eta 3 urterekin, eskatzen nuen gauza bakarria itsasontzia zen".

Hortaz, belaontzia ekipatu eta itsasaldi luzeagoak egiten hasi ziren. "Hasieran, Iberiar penintsularen inguruan, eta halako batean, Mallorcara (Herrialde Katalanak) joan ginen".

Han, belaontzia itsasaldi luzeagoetarako prestatzen ari zirela, bigarreneguz gelditu zen haurdun Amaia. Hodei jaio zenean, Izarrekin egindako proba berak egin zituzten gurasoek. "Eta anaia-rekin ere gauza bera. 3 urte betetzerako belaontzian ibiltzea besterik ez zuen eskatzen, eta gurasoek erabaki zuten beren asmoekin aurrera egiteko momentua zela. Aurreneko bi urteak Kanarietan egin genituen, eta gero, Atlantikoa gurutzatu eta Hego Amerika guztia belaontzian zeharkatu genuen: Brasil, Karibe, Venezuela...".

Bidaiaren nondik norakoa unean-unean erabakitzen zutela kontatu du. "Garbi genuen bakarria zen urakanetatik eta gune arriskutsuetatik urrun ibili nahi genuela, baina, bestela, ibilian erabakitzen genuen nora joan eta leku bakoitzean zenbat denboraz gelditu".



Atzera begira jarrita, Izarrek badaki "sekulako esperientzia" izan zela hura. "Orain konturatzen naiz zer-nolako haurtzaroa izan nuen, zeinen desberdina haur gehienek izan dutenarekin alderatuta; umetan gauza normaltzat nuen belaontzian esnatzea, egun batean tximinoak ikustea eta hurrengoan dortoekin bainatzea".

Zailena, ikasketak

Zailena, dudarik gabe, ikasketak aurrera ateratzea izan zela aitortu du. "Ama zen irakaslea, eta gaizki eramaten nuen hori". Lehorrean egiten zituzten

"Orain konturatzen naiz zer-nolako haurtzaroa izan nuen, zeinen desberdina haur gehienek izan dutenarekin alderatuta; umetan gauza normaltzat nuen belaontzian esnatzea, egun batean tximinoak ikustea eta hurrengoan dortoekin bainatzea"

egonaldiak aprobetxatzen zituzten ikasteko, eta itsasoan zebiltzanean ez zuten eskolarik hartzen. "Gero, udaro, Getariara etortzen ginen oporraldia pasatzera, eta anaiak eta biok Madrilera joan behar izaten genuen azterketa bat egitera. Han erabakitzen zuten ikasturtea gainditzeko gai ginen edo ez".

Bidaia, besteak beste, hezkuntza arrazoiengatik bukatu zutela esan du. "DBH hasi behar nuen, eta horrek asko zailtzen zituen gauzak, Madrilera urtean behin joan ordez, hiru hilabetez behin joatera behartzen baininduten". Eta aitortu du buelta "oso zaila" egin zitzaiola: "Asko kostatu zitzaidan errutina egokitzea, eta eguna joan eguna etorri toki eta aurpegi berak ikustera ohitzea".

Gaur egun, anaia eta biak itsasontzien mekanika ikasten ari dira, noizbait itsasoan lan egiteko asmoarekin. "Ez dakit etorkizunak zer ekarriko duen, baina polita izango litzateke egunen batean bion artean belaontzi bat erosi eta umetan hasitako bidaia hura jarraitzea". ■



KUBA

Kubara joatea denboran atzera jauzi egitea da, 1960ko hamarkadara, hain zuzen. Habana hiriburua ikusgarria da, eta hondartza bikainak ditu.

2



SARDINIA

Mediterraneoko bigarren uharterik handiena. Dena dauka: turkesa koloreko urak, 2.000 metrotik gorako mendiak eta herrixka xarmagarriak.

3

JAPONIA

Bisitariak harritu eta maitemindu egiten ditu, besteak beste, tradizioa eta etorkizuna oso modu orekatuan uztartzeko gaitasuna duelako.

4



ISLANDIA

Bizi-bizirik dauden sumediak, labazko basamortuak, ur jauziak, glaziarrak, geiserrak, ur termalak... Ez da naturaren indarraz jabetzeko leku hoberik.

5

KOLONBIA

Krimen kopurua nabarmen murriztu izanak mundu guztiko turisten helmuga bihurtu du Hegoamerika iparraldeko harribitxi hau.

1



HEGOAFRIKA

Animalia basatiak gustuko dituztenen paradisu. 300 ugaztun eta 850 hegazti espezie inguru ikus daitezke hango babestutako naturguneetan.

6



ZEELANDA BERRIA

7

Paisaia natural ikusgarriak ditu: hondartzak, sumendiak, fiordoak, geiserrak, glaziarrak... Eta autokarabanaz bidaiatzeko munduko leirik onena da.

BRASIL

Hamaika gauza erakargarri ditu: hondartzak, Amazonia, kaleko bizitza, musika, gastronomia... Baina denen gainera, hango jendearen alaitasuna.

8



NEW YORK

9

Etxe orratzen hiria edo sekula lorik egiten ez duena, beti da modako helmuga. 8,4 milioi biztanle ditu, eta 50 milioi bisitari hartzen ditu urtero.

ALBANIA

Adriatikoko altxor ezkutua, Montenegrokin batera. Ez dira turista gehien hartuko dituzten herrialdeak, baina, martxa honetan, aurki izango dira. ■

10





PEDALKADAZ PEDALKADA ABENTURAK SORTZEN

Bizikleta gainean munduko leku askotara iritsitakoa da Mamen Etxaniz. Teruelen, Cuencan eta Guadalajaran (Espainia) barrena 700 kilometro eginda etxera bueltatu berri da azpeitiarra. Orain arteko abenturatik "basatiena" izan dela dio.

Mamen Etxanizi (Azpeitia, 1961) umetatik datorkio kirolerako, eta, batez ere, bizikletarako afizioa. Aita txirrindularia zuen, eta go-goan du haren txirringa hartu eta nola joaten zen Loiolara, "nola edo hala". Lehenengo jaunartzean oparitu zioten aurreneko bizikleta, eta 15 bat urtera arte, haren gainean joaten zen Urrestillatik Azpeitira eskolara, eta harekin ibiltzen zen lan egiten zuen harategiko banaketa egiten ere.

Harrezkero, mundu guztian barrena ibili da bizikletaz, eta pedalkadaz pedalkada, milaka kilometro egin ditu; azkeneko 700 kilometroak joan zen hilean bertan, Espainian, Montañas Vacias ibilbidea gauzaten. "Teruel osoa eta Cuencako eta Guadalajarako zati batzuk zeharkatzen ditu ibilbideak. Teruelgo mutil bat ibilbide hori ezagutarazi nahian dabil, hango herri asko eta asko hutsik gelditzen ari direla eta pena dela erakusteko munduari". Etxanizek kontatu du Urrestillaren tamainako dozenaka herri zeharkatu dituela, eta guztiz



"Pertsonalki esperientzia oso aberasgarria izan da, bakar-bakarrik moldatzen jakin behar izan dudalako. Behar nuen guztia gainean eraman behar izan dut".

hutsik ez daudenetan, hiru edo lau lagun bakarrik bizi direla.

Izatez, paraje "zoragarria" dela azaldu du: "Basoa dago, hantxe sortzen da Tajo ibaia ere... Baina, gaitzaren, ez dago ezer. Pertsonalki, ordea, esperientzia oso aberasgarria izan da, bakar-bakarrik moldatzen jakin behar izan dudalako. Behar nuen dena gainean eraman dut: karpin denda, su txikia, janari pixka bat eta arropa batzuk". Gau batzuk mendiko aterpeetan pasatu ditu.

"1.400 eta 2.000 metro arteko altueran ibili naiz, eta sekulako hotza pasatu dut. Zenbait gauetan, mendiko aterpe horiek izan dira nire babes; batzuk garbiagoak, besteak zikinagoak".

Bizikleta gainean bidaia handi eta berezi asko egindakoa den arren, orain arteko abenturarik "basatiena" azken hori izan dela baieztatu du azpeitiarrak. "Zenbait egoerari aurre egiteko, orain arte pilatu dudak jakintza guztia erabili behar izan dut". ■

"ODOL BEROKOA NAIZ, ETA EZ ZAIT KOSTATZEN ALDAKETAK EGITEA"

Duela hamazazpi urte, bidaia handi bat egitera zihoala esanda alde egin zuen Imanol Larrañagak (Azkoitia, 1985), eta hor zehar jarraitzen du oraindik. Buelatu izan da jaioterrira, baina bisitan bakarrik, eta oraingoz, ez du inon sustraitzeko asmorik. Kalifornian dago orain, eta epe luzerako planak egitekoa ez den arren, badarabil asmo bat buruan: Amerika gurutzatzea, Alaskatik Patagoniara.

20 urterekin alde egin zenuen Azkoitik, eta harrezkero, bisitan bakarrik joan izan zara hara. Nondik nora ibili zara urte haue-tan guztietan?

Lehenengo bidaia Mexikora egin nuen, 20-21 urterekin. Anaia han bizi zen, eta hura bisitatzeko aitzakiarekin, zortzi hilabeteko bidaia egin nuen lagun on batekin. Mexikoz gain, Kubara ta Guatemalara joateko aukera izan nuen. Gero, ingelesa ikasteko eta gonorazko zeozer egiteko asmoarekin, urtebete egin nuen Australian eta Zeelanda Berrian. Harrezkero, gehienbat Asian ibili naiz, eta hura da gehien eza-gutzen dudan kontinentea. Thailandian, Laosen, Kanbodian, Myanmarren, Txinan, Mongolian, Kazakhstanen, Arabiar Emirerri

Batuetan, Omanen, Iranen... ibili naiz.

Non zaude orain eta zer asmo dituzu?

Orain momentuan Amerikako Estatu Batuetan nago; zehatzago esateko, Kalifornia iparraldean. Pandemia hasi zenean etorri nintzen Indonesiatik hona, nahiz eta jende askok birusagatik ez etortzeko esan. Ziur asko urte bukarara arte eongo naiz hemen, lehenago nazkatu, motxila hartu



"Denetarik egin dut: jatetxe txinatar batean platerak garbitzen ibilia naiz, baita urpekaritzako luxuzko yate bateko zuzendari lanetan ere"

eta alde egiten ez baldin badut. Hemendik Mexikora joan beharra daukat kontu burukratiko baten-gatik, baina, nik uste, Amerika gurutzatzea izango dela hurrengo abentura, Alaskatik Patagoniara. Hala ere, edozein momentutan alda ditzaket planak; ez dago jakiterik.

Gauzak aurrez lotuta izatea gus-tatzen zaizu edo sortzen doazen bezala egiten dituzu?

Nire mugitzeko era gutxi prestatutakoa edo batere prestatu gabea izaten da, eta gehienetan, epe motzetan mugitzen naiz. Baten batek zeozer proposatu, pixka bat pentsatu, eta egin; edo non-baiten lan aukera polita dagoela eta gero bidaiatzeko aukera da-goela, hara; leku bat aspergarria, monotonia edo errepikakorra



bihurtzen dela, ihes beste leku batera... Egia da leku batzuetan nahi baino denbora gehiago geratu behar izan dudala, konpromisoren bat tarteko –lan bat edo beste zerbait–, baina berez odol berokoa naiz, eta ez zait kostatzen aldaketak egitea.

Motxila hartu eta hara eta hona ibiltzeak zer du horren ona?

Gauza denek bezala, gauza onak baditu, baina ez hain onak ere bai. Alde ez hain ona da inon ez zarela sustraitzen. Aspaldiko lagun batek esan zidan bezala, kondena bat bihur liteke beti beste leku batean zer egongo den jakin-min ez bizitzea. Gauza onak, berriak, asko ditu; beti gauza berriak ikusten, entzuten, usaintzen, probatzen, ikasten aritzea. Jende berri asko ezagutzeko aukera ere ematen du, modu askotako jendea klase sozialari, kulturari eta pentsaerari dagokionez. Dena berria da beti. Behin baino gehiagotan esan izan dudan moduan, mundua handiegia da beti leku berean egoteko.

Horrenbeste urtean kanpoan, lana ere egin beharko zenuen. Zertan jardun izan duzu?

Mexikora egin nuen lehen bidaiaren haren aurretik, lan mordo bat egin behar izan nuen diru pixka bat aurrezteko. Bueltan nintzenean, istorio bera: lana egin, dirua aurreztu eta alde egin. Baina, halako batean, zera pentsatu nuen: "Zergatik bueltatu lana egiteko? Zergatik ez lana topatu eta nagoen lekuan edo egon nahi dudan lekuan geratu?". Orduan, denarik egin dut: jate txinatar batean platerak garbitzen ibilia naiz, baita urpekaritzako luxuzko yate bateko zuzendari lanetan ere. Hala ere, gehienbat urpekaritzan jardun dut; asko gustatzeaz aparte, leku eta lurralde askotan lan egiteko aukera ematen dit. Dena dela, beharra izango banu, ia edozertan egingo nuke lan; lanak ez dit sekula beldurrik eman.

Zure bizitza abentura handi bat da, baina orain arte bizitaketatik, zein etapa nabarmenduko zenuke?

Nabarmentzeko leku eta abentura asko ditut, baina handiena eta gogorrena bizikletaz egin nuen bidaiaren izan zen. Bizitzako garai gogor bati buelta emateko, Thailandiatik Azkoitira bizikletaz abiatu nintzen, bakar-bakarrik. Azkenean, bidaiak hartu zuen norabideagatik –negu gorria eta beste arazo batzuk– eta beste abentura bat hasteko aukera sortu zitzaidalako –Polinesiar baleekin lan egiteko aukera–, Iraneraino ailegatu nintzen. Helburu pertsonala lortuta neukan ordurako, eta horregatik hartu nuen erabakia; bestela ez nukeen orduan bukatuko.

Orain arte ezagutu dituzun lekuetatik bat aukeratu beharko bazenu...

Dudarik gabe, Mexiko: hango kultura, jendea, herrialdea bera... Nire izaeragatik gauza askotan bat egiten dudalako edo egin nuen lehen bidaiaren luzea eta abentura izan zelako, baina erabat maiteminduta nago herrialde horrekin.

AMERIKA, AUTOSTOPEAN

Txikitatik zeukan abentura gosea asetu nahian, motxila hartu eta Amerikara joatea erabaki zuen Ion Brakamontek. Argentinan hasitako bidaia Ameriketako Estatu Batuetan bukatu zuen bi urte eta erdi geroago, denera hamahiru herrialde zeharkatuta. Toki bakar bat nabarmentzeko eskatuta, Peru erantzun du, Amazoniako natibo batzuekin eraiki zuen harremanagatik.

Umetatik izaera abenturazalea izan du Ion Brakamontek (Zumaia, 1981). "Txikitan askotan amesten nuen baltsa bat hartu eta itsasora ateratzen nintzela, eta estropada egun batean, halaxe egin nuen, Gurutze Gorrikoek gelditu ninduten arte". Gerora, Brasilen Musika Hezkuntzako ikasketak bukatzen ari zela, motxileroek eman zioten inbidia. "Pila bat ikusi nituen, eta neure buruari esan nion egunen batean horrela bidaiatuko nuela".

Esan eta egin. Motxila batekin eta autostop eginez, Amerikako hamahiru herrialde gurutzatu zituen bi urte eta erdiko bidaiari: Argentina, Txile, Bolivia, Peru, Ekuador, Kolon-

bia, Panama, Costa Rica, Nikaragua, El Salvador, Mexiko, Guatemala eta Ameriketako Estatu Batuak. Hego Amerikako herrialdeetatik, Peru nabarmendu du. "Han boluntario lanetan aritu nintzen Amazoniako natibo batzuekin, eta esperientzia ederra izan zen; arrasto handia utzi zuen nigan". Erdialdeko Amerikatik, berriz, El Salvadorrek "harritu" zuen

"Buenos Airesen lurrartu eta haren handitasunaz jabetu orduko, hankaz gora jarri zitzaizkidan maparen gainean egindako plan guztiak"

gehien. "Ez nuen hara joateko asmorik, baina batek baino gehiagok gomendatu zidatenez, joan egin nintzen, eta ustekabe polita hartu nuen".

Izan ere, etxetik asmo batzuekin irten, eta beste batzuk gauzatuta itzuli zen. "Banekien zer herrialde ikusi nahi nituen, eta horietako bakoitzean hilabete egitekotan joan nintzen. Baina Buenos Airesen lurrartu eta haren handitasunaz jabetu orduko, hankaz gora jarri zitzaizkidan maparen gainean egindako plan guztiak. Orduan konturatu nintzen inprobisatzea izango zela onena, gauzek eramaten ninduten tokira joatea, eta hala nebi-lela ikasi nuen zer gutxi behar dugun zoriontsu izateko". ■



GUSTUKO HAMAIKA BIDAIA

Zein da sekula egin duzun bidaiarik onena edo zugan arrastorik handiena utzi duena? Eta nora joango zinateke gustura? Bi galdera horiek egin dizkiegu eskualdeko 11 herritarri, herri bakoitzeko banari, eta hona hemen eman dituzten erantzunak:



NEREA AMILIBIA
KORRIKALARIA (AIA)

"Bidaiatzea gustuko dut, baina ez dut asko-asko ere bidaiatu. Lasterketak tarteko mugitu izan naiz gehien, batez ere euskal

selekzioarekin lehiatzen nuen garaian. Joan ginen Italiara, Frantziara, Suitzara, baita Malaysiara ere.

Hain zuzen ere, Malaysiara egindako hura da sekula egin dudan bidaiarik handiena eta onena. 2010ean izan zen, eta lasterketa bat egiteko aitzakia-rekin, astebeteko oporrak ordaindu zizkiguten. Ikaragarri gozatu nuen. Euskal Herritik asko atera gabea nintzen, eta hango oihanak eta hango pai-

saiak liluratuta utzi ninduten, 4.000 metroko mendi haiek-eta ikusgarriak iruditu zitzaizkidan.

Nora joango nintzatekeen, berriz, ez daukat oso argi, baina mendi aldera joango nintzateke. Alabak esan didanez, Perun, Patagonia aldean, mendi ikusgarriak daude, eta agian ez litzateke aukera txarra. Bikotekidearekin joango nintzateke; bera ez da korrika ibiltzen, baina ibilaldi batzuk egingo genituzke".



UNAI EGAÑA
IDI PROBALARIA (AIZARNAZABAL)

"Iberiar penintsulan dezente ibiltzen gara karabanarekin, eta Balearrak ere gustuko ditut, baina bidaiak, ez. Baka-

rra egin dut, 2010ean, ezkondu ginenean: Zeelanda Berrira eta Polinesia Frantsesera joan ginen hiru bat asterako. Argentinara joan nahi genuen, gure aitona-eta handik etorritakoak direlako, baina han bertan hegaldi asko hartu beharko genituela eta, Zeelanda Berrira joatea erabaki genuen.

Zeelanda Berria bi uhartetik osatzen dute, eta Aucklandetik abiatu, eta goitik behera, biak zeharkatu genituen autoz. Bi

uhartek oso desberdinak dira: goikoan, lautada asko dago, eta behekoan, basoa eta mendi altuak; Euskal Herriaren oso antzekoa da. Handik Moorea irlara joan ginen, eta han pasatu genituen bost edo sei egun etzanda; hondartzaz gain, ezer gutxi ikusi genuen.

Beste bidaiak handi bat egitekotan, Argentinara joango nintzateke, Panpako ganadutegiak-eta ikustera. Ez nintzateke joango hiri handi batera".



UDANE JUARISTI
ARTISTA (AZKOITIA)

"New York, Kuba, Thailandia, Venezuela, Alemania, Frantzia, Italia, Portugal, Erresuma Batua, Txekia... Bidaia zoragarriak egin

ditut, baina Marokora egindako bat nabarmenduko nuke. Bikotekidearekin joan nintzen, 2018ko udan, eta leku ugari eta hango bizimodua ezagutzeko aukera izan genuen.

Janaria eta tea ikaragarri gustatu zitzaizkidan –ez dut halako terik egiterik lortu–, eta Essaouirak liluratuta utzi ninduen. Arrantzale herri txiki bat da, eta hango koloreak, giroa, jendea, itsasontziak eta txalupak, usaina... koadroetarako inspirazio bikaina

izan ziren. Chefchauen ere zoragarria iruditu zitzaidan; kaleetako kolore urdin turkesak ikaragarri erakarri ninduen. Gainera, 2021ean itzultzeko aukera izan nuen, lanera: Essaouiran ateratako argazki batean oinarritutako mural bat margotu nuen Rabaten. Ederra izan zen.

Joango nintzatekeen leku bat, berriz, Mexiko da; aspalditik dut gogoia, eta udan joango naiz, lagunekin. Ziur argazki mordo batekin itzuliko naizela".



EIDER ALKORTA
EHU-KO IRAKASLEA (AZPEITIA)

"Bidaiari ospea dut, baina ez dakit horrenbesterako den. Kontinenteka, honako hauek dira bisitatu ditudan leku batzuk:

Afrikan, Maroko, Tunez, Egipto, Namibia, Botswana, Kenya, Tanzania eta Zimbabwe; Amerikan, New York, Kuba eta Peru; Europan, leku asko, baina Bosnia eta Montenegro nabarmenduko nituzke; eta Asian, Zetaren Bidea egin nuen Uzbekistan, Kirgizistan eta Txinan barrena, eta egonda nago Vietnamen, Thailandian eta Japonian ere.

Bihotza erdibituta daukat Zetaren Bidearen eta Nami-

biaren artean. Namibian 2009an izan nintzen, eta Afrika beltzera egin nuen lehen bidaia izan zen; ez dakit ederrena izan al den, baina bai gehien eragin zidana. Zetaren Bidea, berriz, 2019an egin nuen, eta ikusgarria izan zen; hiriak, kultura, mendia... Oso bidaia orekatua.

Ezagutzen ez ditudan leku guztietara joango nintzateke, baina bat aipatzekotan, AEBak gurutzatuko nituzke kostatik kostara".



IGONE ARRUTI
HEZITZAILEA (BEIZAMA)

"Gustuko dut bidaiatzea, baina ez naiz zaleitsu horietakoa. Argentinara 2004an egindakoa izan da gauzatu dudana bidaia-rik luzeena eta ikusgarriena.

Orduko bikotekidea eta biok joan ginen, motxila bana hartuta, eta hilabete eskasean herrialdea goitik behera zeharkatu genuen. Uruguaira pasatu ginen gero, garai batean hemendik joandako familiarteko batzuk bisitatzera. Bidaia hartan kristoren energia sentitu nuen, naturaren indarra, iruditzen zitzaidan dena zela oso handia; eta gogoan dut zirrarak handiena Iguazuko ur jauziak eragin zidala.

Horretaz aparte, Pragan (Txekia) izana naiz, bidaia erromantikoan, eta Suedian ere bai. Bidaia hartan lagun baten etxean pasatu genuen uda, eta, besteak beste, Gotland uhartean izan ginen.

Zaila egiten zait bidaiatuko nukeen leku bat aukeratzea. Zeelanda Berrira joatea da nire ametsetako bat, eta gertuxeago, Eskoziara eta Irlandara joango nintzateke. Noiz joan ahalko dudana ez dakit, baina badaezpada ari naiz ingelesa praktikatzen".



AIMAR IRIGOIEN
HARRI JASOTZAILEA (ERREZIL)

"Egia esan, oporrak ditudanean, gustura ibiltzen naiz etxe aldetik, eta ez daukat bidaiatzeko ohitura handirik. Dena den,

tokatu izan zait bidaiaren batzuk egitea, batez ere harri jasotzea tarteko. Adibidez, Amerikan izana naiz, Boisen izaten den jaialdian; eta Suitzan ere bai. Bidaiarik handienak harri jasotzearen aitzakian egin ditut, eta horiez gain, ezkon bidaian Mexikon izan ginen.

Bidaia onena aukeratu behar ko banu, Suitzara egindakoa aipatuko nuke. Ezingo nuke esan nondik nora ibili ginen, baina bai sekulako paisaiak

ikusi genituela: oso berdeak, oso menditsuak eta oso politak. Orain dela hamabost bat urte izan zen; segalari talde batekin joan nintzen, harri jasotzaile lanetara, erakustaldiak egitera.

Gustura joango nintzatekeen leku bat, berriz, Zeelanda Berria da. Argazkietan-eta ikusi dudanez, hura ere oso berdea eta menditsua da, eta hara joatea bada buruan daukadan zerbait. Familiarekin joango nintzateke".



IRATI IDIAKEZ
SNOWBOARDERRA (GETARIA)

"Europako herrialde askotan izanda nago, batzuetan snowagatik eta besteetan plazezagatik joan naizelako, eta

Amerikan egonda nago, Txilen, Bolivian eta Perun.

Nigan arrastorik handiena utzi duen bidaia Txilera egindakoa izan zen. Erasmusen antzeko programa batekin joan nintzen hara, eta egonaldiaren bukaera aldera, istripu bat izan eta besoa galdu nuen. Horren ondorioz, goitik behera aldatu zen nire bizimodua, eta ez besoa galdu nuelako soilik; istripuaren ostean hasi nintzen snowan. Gizarte lanak ikasten

ari zen gazte bat izatetik, kirolari izatera pasatu nintzen.

Beste bidaia garrantzitsu bat aurtengo urtarrilean Munduko Txapelketa jokatzera Norvegiara egindakoa izan zen. Ama eta anaia nirekin izan nituen, gainera.

Denbora nahikoa izango banu, gustatuko litzaidake boluntario gisa, pare bat hilabetez, Kenyara joatea. Ez dakit noiz ahalko dudan, baina badakit noiz-bait egingo dudala".



NADETH AGIRRE
ARRAUNLARIA (ORIO)

"Lana dela eta arrauna dela, nahiko lotuta bizi naiz, eta ez dut bidaiatzeko aukera handirik izan, baina egona naiz Madrilen,

Bartzelonan, Estokolmon, Parisen, Londresen, Ibizan...

Zaila egiten zait bidaia bat aukeratzeko. Londresera bikote-kidearekin joan nintzen, eta asko gustatu zitzaidan; Parisen lagunekin izan nintzen, eta oso ondo pasatu genuen... Baina bakarrik aukeratzeko, Ibiza esango nuke. Oso eguzkizalea naiz, berrozalea, eta gainera, oso leku polita iruditzen zait. Ahizpa han bizi da, eta hura bisitatzeko aitzakian behin baino gehiagotan

izan naiz; hori bai, beti bisitari moduan, ez parrandara joanda.

Gustura joango nintzateke Islandiara; hango mendiek, ur jauziek eta icebergek asko erakartzen naute. Eta bestela, Gabonen bueltan, Laponiara, aurora borealak eta elurte handi horiek ikustera. Horrez gain, AEBetara joatea ere nahi nuke: San Frantziskora, Los Angelesera New Yorkera... Eta Caribera, eguzkitan etzan eta egotera".



AITOR FRANTZESENA
SURFLARIA (ZARAUTZ)

"Asko bidaiatu dut, gustuko dudalako eta surfagatik. Egonda nago Hegoafrikan, Australian, Thaitin, Reunion uhartean eta

Erdialdeko eta Hego Amerikako hainbat lekutan: Costa Rica, Nikaragua, Panama, Venezuela...

Bidaiarik politenetakoa Reunion uhartera egindakoa izan zen. Lekuaz maiteminduta gelditu nintzen: landaredia, uhartearen forma, itsasoaren kolorea... Bertako jendea oso ederra da, gainera; albinoen, beltzen eta nipondarren arteko nahasketa dira, eta badago jendea azal beltza, ile horia eta begi berde eta *atxinatuak* dituen. Eta ola-

tu oso onak izaten dira; hain zuzen ere, Europako Txapelketa jokatzera joan nintzen hara, Reunion Frantziako departamentu bat delako.

Azkenaldian, alabari eta bikotekideari aurrez egondakoa naizen lekuak erakusten ari naiz; esaterako, orain gutxi Hawain izan naiz bikotekidearekin. Urtero saiatzen naiz leku berriren batera joaten: datorren urtea Vietnamen hasi nahi dugu, eta handik Kanbodiara-eta joan".



AMANCAY GAZTAÑAGA
ARTISTA (ZESTOA)

"Bidaitzea ikaragarri gustatzen zait, eta leku askotan izan naiz, batez ere Atlantikoaren beste aldean: Mexiko, Peru, Ekuador...

Afrikan eta Asian ere izandakoa naiz, eta European barrena ere ibili naiz.

Liluratuta utzi ninduen eta berriz itzuliko nintzatekeen lekua Myanmar da. 2009an hamar egun egin nituen han, bikotekidearekin. Egia da hango egoera sozio-politiko gogorra dela, lehen ere bai, eta orain gehiago, baina flipatu egin nuen: hango espiritualtasuna, paisaia bera... Herrialde magikoa iruditu zitzaidan.

Gustura joango nintzatekeen lekuak, berriz, asko dira. Adibidez, badakit Myanmarrera noizbat itzuliko naizela; Ekuadorrarako bidaiarekin zintzilik daukat, izebak bisitatzera joan beharra daukadalako; Afrikara ere itzuli nahi dut, Kenya eta beste leku batzuk ezagutzeko; eta sekula izan ez naizen leku bat eta joateko gogo handia daukadana Japonia da. Eta Bali eta Zelandia Berria ere bai, baina diru asko behar da horretarako".



JON KAREAGA
INGURUMEN AKTIBISTA (ZUMAIA)

"Bidaiatzea pribilegio bat da, eta zorteduna naiz, gurasoekin asko ibili naziela, baina ingurumen aktibista naizenetik injus-

tizia sozialak eta klimatikoak komunikatzeko bakarrik bidaiatzen dut.

Gogoan dut Marokok asko harritu ninduela, Mendebaldetik atera eta beste kultura eta antolaketa bat ezagutu nituen lehen aldia izan zelako. Gerora, asko ibili naiz Asian, unibertsitatearekin, gurasoekin zein bakarrik.

Nigan arrastorik handiena utzi duen bidaiarekin Bangladeshera egindakoa izan da. Bakarrik joan nintzen, moda industriak han

duen eragina salatzen dokumental bat grabatzera. Ikusi nituen umeak lanean, laranja koloreko ibaiak... Lau egun izan ziren, esperientzia gordina eta aberasgarria, eta nire bizitzan inflexio puntu bat.

Ezagutuko nitzutekeen herrialde asko zerrendatik kendu ditut, haietara joateak zentzurik ez duelako, baina joango nintzateke Ghanara, Himalaiara, Zimbabwera, Bangladeshera eta Indonesiara". ■

MALETA PERFEKTUA

Oporretarako prest?
Maleta egitea falta zaizu,
ordea, eta ez dakizu
nondik hasi: zer eraman,
nola sartu... Ohikoa da.
Laguntza txiki bat nahi
izanez gero, hona hemen
maleta egokia egiteko
beharrezko gakoak:

1. Maleta

Ez da gauza bera egun askotarako edo astebururako plana izatea. Ez da gauza bera hotel batera joatea edo itxi gabeko oporrak egitea.

Planaren arabera, maleta, motxila edota eskuko maleta beharko duzu.

Horregatik, zure beharretara egokitzen den maleta hautatu, eta gogoratu arropa gutxiago hondatuko dela beti maleta batean.

2. Eguraldia

Eraman beharreko arropa aukeratu aurretik, zoazen lekuan zer-nolako eguraldia egingo duen jakin behar duzu. Eguraldi ona eta beroa bermatuta baldin badituzu, nahikoa izango dituzu arropa freskoa eta sandaliak; aldiz, klima aldakorra baldin bada, beroki bat edo jaka arin bat ere beharko duzu gauetarako.



3. Zerrenda

Eraman beharrekoa zer den argi izateko, garrantzitsua da zerrenda idaztea; izan ere, horrela gauza gutxiago ahaztuko zaizkizu etxean. Lagunekin baldin bazoaz, hitz egin haiekin, agian zuk ahaztuta duzun zerbaitekin oroitu dira eta. Hotelera baldin bazoaz, gogoratu gehienetan xanpuak eta gelak egoten direla.

4. Konbinatu

Elkarrekin konbinatzen duten jantziak aukeratu. Arropa guztia ohe gainean jartzea da horretarako teknikarik onena, errazago ikusiko baituzu dena. Eta gogoratu: *badaezpada* hitzak ez du balio maleta egiterakoan.

5. Kontuz tolestu

Tolestu arropa ahalik eta gutxien, jarri ondo luzatuta, eta aprobe txatu maletaren zabalera

guztia. Kamisetentzat KonMari metodoa erabil dezakezu: biribildu daitekeen guztia biribildu, fularrak eta bainujantziak barne, eta espazio txiki guztiak aprobe txatu. Alkandorak eta jakak, berriz, jarri goian, ez daitezen oso zimurtuta iritsi. ■







ARGAZKI KAMERA EZINBESTEKO BIDELAGUNA

Doan tokira doala, argazki kamera aldean duela joaten da Joxemari Olasagasti (Orio, 1955): familiako ospakizunetara, herriko jaialdietara, estropadetara, eta, nola ez, bidaietara. Ikasle garaian piztu zitzaion argazkilaritzarekiko interesa. "Arrasaten ikasi nuen, eta han, egoitzan, ikastaro bat antolatu zuten. Oinarrizkoa zen, baina zerbait ikasi genuen". Lehendabiziko kamera anaia zaharrak oparitu zion 1977an, ezkondu zenean. "Ezkon bidaian Kubara joan ginen, eta han hasi nintzen argazkiak ateratzen".

Orditik hamaika bidaia egingakoa da oriotarra, baina denengaietik, bi nabarmendu ditu: "1987an Sobietar Errepublikaren Sozialisten Batasunera (SES) joan ginen, eta Armenia, Georgia eta Uzbekistan ezagutu genituen. Uzbekistanek erabat liluratu gintuen, bueltatuko

ginela esan genuen, eta 2019an itzuli ginen".

Azken urteotan ezagutu duen herrialderik "harrigarriena", ordea, "dudarik gabe, Iran" izan dela dio. "Horren desberdina da han dena... Herrialdea bera ikusgarria da, eta jendea, ikaragarri atsegina". 2016an emaztea eta biak izan ziren han, eta aurki itzultzeko asmoa dute.

Gaztetan, Europaren barrena ibili izan ziren beren erara, baina bidaia handiagoetara agentziek antolatuta eta taldean joan izan dira. "Erosoago ibiltzen naiz horrela, eta herrialdea

Azken urteotan, Iranek harritu du gehien. "Horren desberdina da dena... Tokia ikusgarria da, eta jendea, ikaragarri atsegina"

deskubritzen joaten naiz argazkiak ateratzen noan heinean". Ez da etxetik dena lotuta eramanen duten horietakoa. "Nahikoa izaten dut lau gauza jakinda; agian, emaztea justu kontrakoa delako izango da".

Olasagastiri, batez ere, jendeak ematen dio atentzioa, aurpegiek, eta haiei ateratzen dizkie argazki gehienak. "Batzuetan baimena eskatzen diet, baina beste batzuetan tranpa txikiren bat egin eta konturutzerako argazkia atera ere bai". Noiz edo noiz arazotxoaren bat ere izan du. "Azkenekoa, Uzbekistanen. Bi neska ziren, estalita zihoazen, eta argazkia atera niela konturatu zirenean, haserretu egin ziren. Nigana zetozen bitartean ezabatu egin nuen argazkia, eta gezurra esan nien, ez niela argazkirik atera. Azkenean, horretan geratu zen kontua". ■

"BOLUNTARIOTZA MODU OSO ONA DA HERRIALDE BAT BARRUTIK EZAGUTZEKO"

Nagore Gurrutxaga
BOLUNTARIOA

Flores de Kiskeya gobernuz kanpoko erakundearen boluntario lanetan jarduten du Nagore Gurrutxagak (Azpeitia, 1999), eta iazko uztaila Haitin igaro zuen. Espero baino errealitate latzagoa topatu zuen han, baina ikasketa bikaina izan zela dio.

Nolatan joan zinen Haitira?

Kasualitatez izan nuen Flores de Kiskeya erakundearen berri, baina zer lan egiten zuten jakitean, laguntzeko beharra sentitu nuen. Duela bi urte hasi nintzen horretan, eta iaz Haitira joateko aukera sortu zitzaidan.

Nolakoa da hango egoera?

Munduko herrialderik probreenetakoa da; herritarren %60 pobrezia mugaren azpitik bizi dira. Gainera, herrialde oso matxista da, eta ez da batere segurua. Gure erakundeak Haiti eta Dominikar Errepublikaren arteko mugan dagoen Anse-à-Pitres izeneko herrixkan laguntzen du, eta eguna han pasatzen genuen arren, lotara Dominikar Errepublikako Pedernales herrira joaten ginen, segurtasunagatik.

Zuen erakundeak zertan jarduten du han?

Batez ere, emakumeei eta umeei laguntzen die. Zentrora etortzen dira zailtasunik handienak dituzten emakumeak; abandonatuak izan direnak, bortxatuak, bost edo sei ume bakarrik aurrera atera behar dituztenak... Horien garapen pertsonala eta profesionala bermatzea da gure helburua. Horrez



"Munduko herrialderik probreenetakoa da Haiti; herritarren %60 pobrezia mugaren azpitik bizi dira. Gainera, oso herrialde matxista da"

gain, herritarren oinarrizko beharrak asetzeko beste proiektu batzuk ere badiugu martxan.

Zu zertara joan zinen?

Erakundearen komunikazio sailean aritzen naiz, eta gure proiektua zabaltzeko edukiak sortzera joan nintzen gehienbat, hango bizimodu ahalik eta ondoen islatzen duten argazkien eta irudien bila.

Nolako esperientzia izan zen?

Haitira joan aurretik, proiektua goitik behera ezagutzen nuela uste nuen. Iritsi nintzenean, baina, sekulako kolpea hartu nuen. Konturatu nintzen gure zentroa oasi bat zela, eta handik kanpoko zela errealitatea: argindarrik gabeko txaboletan bizi dira, zortzi-bederatzi lagun txabola berean, umeak arroparik gabe eta elikagai zein diru eske ibiltzen dira kalean... Askok kostatu zitzaidan hori barneratzea. Hala ere, esperientzia bezala, oso polita izan zen; ikasketa bikaina.

Bidaiatzeko modu ona al da boluntariotza?

Herrialde bat barrutik ezagutzeko modu oso ona da, baina beti erakunderen baten babesean joatea gomendatuko nuke. ■



EZAGUTU MEXIKO MIKEL ALBERDIREN ESKUTIK

Mikel Alberdi azpeitiarrak sei urte daramatza Mexikoko Playa del Carmenen bizitzen, eta orain gutxi, Alberdi Tours Riviera Maya turismo enpresa jarri du martxan, emaztearekin batera. Ibilaldiak antolatzen dituzte, bisitariek Riviera Mayako leku ikusgarrienak ezagutzeko eta esperientzia ahaztezinak bizitzeko aukera izan dezaten: "Beren bizitzako oporrak pasatzen laguntzen diegu".



+52 9841826482

alberditours222@gmail.com · www.alberditoursrivieramaya.com

Alberdi TOURS · alberdi_tours





Oporraldia pasatzera Mexikora joan, eta herrialdeaz maiteminduta itzuli zen Mikel Alberdi (Azpeitia, 1989). Lana utzi eta urtebetez proba egitera joatea erabaki zuen, eta sei urte pasatu dira ordutik. Azpeitiarrak Playa del Carmenen topatu du jaioterrian falta zitzaiona: "Urte guztian eguraldi ona, beste lasaitasun bat, baita gaur egun nire emaztea dena ere".

Bien artean Alberdi Tours turismo enpresa jarri dute martxan, eta Mexikoko Karibe kostara doazen mundu guztiko turistei ibilaldiak eskaintzen dizkiete. "Lehen, antzeko lana egiten nuen, baina beste batentzat. Pixkanaka, hornitzailerik onenekin harremana egiten joan nintzen, eta pandemiak eragindako geldialdian, jauzia egin eta geure enpresa martxan jartzeko unea zela ikusi genuen".

Riviera Mayako leku ikusgarrienak ezagutzeko eta esperientzia ahaztezinak bizitzeko aukera ematen die Alberdik bisitariei.

"Gure bereizgarriak dira bezeroei erabateko segurtasuna eta bermea ematea. Sekula ez ditugu bakarrik lagatzen, eta uneoro egoten gara haiekin harremanetan, dena ondo doala ziurtatzeko. Izugarri eskertzen dute hori"

"Irteerak egin ditzakete, adibidez, munduko zazpigarren miraria den Chichen Itzara; Tulumeko hondar arkeologikoetara; Holbox, Cozumel, Isla Mujeres eta Contoy uharteetara; igeri egin dezakete marrazo balearekin; snorkel egin koral artean... Aukera oso handia da".

"Hornitzailerik onenekin" lan egiten dutela ziurtatu du azpeitiarrak, eta horri esker, "zerbitzurik onena" ematen dutela. "Hotelean jasotzen ditugu bezeroak, eta hotelean utzi; dena zehaztuta izaten dute, hala nola zer ikusiko duten, zer jarduera egingo dituzten, zer eraman... Eta horrez gain, gure bereizgarria zera da: erabateko segurtasuna eta bermea ematen dizkiegu bezeroei. Sekula ez ditugu bakarrik lagatzen, eta

uneoro egoten gara haiekin harremanetan, dena behar bezala doala ziurtatzeko. Izugarri eskertzen dute atzerriko herrialde batean norbait berriez arduratzen dela sentitzea". ■



Donejakue bideaz hizketan hasita, ordubeteko hitzordua motz gelditu zaio Justo Dominguezi (Belvis de la Jara, Espainia, 1954). Bideko gorabeherak eta bizipenak bata bestearen atzetik datorzkio gogora, eta ez da gutxiakorako: azken zazpi urteotan zazpi aldiz iritsi da Santiago de Compostelara (Galizia) oinez; azkenengoz, joan zen hilean. "Aspalditik nuen gogoia, eta erretiroa hartzean egiteko aukera ikusi nuen", hasi da. 2016ko azaroan izan zen hori. Frantses bidea egin zuen ordukoan, baina Orreagatik (Nafarroa) hasita. Guztira, 31 egun eta 960 bat kilometro. Horri Santiagotik Fis-

terrara arteko zatia erantsi zion gero; beste hiru egun.

Bakarrik ekin zion bideari, baina bakardadeak ez zion luze iraun. "Jende gehiena sozializatzeke gogoz joaten da bidea egitera, eta pertsona irekia bazara, berehala egiten dituzu lagunak. Orreagatik Zubirira arteko etapan

"Jende gehiena sozializatzeke gogoz joaten da, eta pertsona irekia bazara, berehala egiten dituzu lagunak. Nik lagun oso onak egin ditu bidean"

hasi nintzen batarekin eta bestearekin hizketan, eta Zubirira iristerako talde bat ginen ia. Go-goan dut denok batera afaldu genuela eta denetariko jendea geundela: bi brasildar, Herbehereetako aita-alaba batzuk, suitzar bat, katalanak...". Aitortu du ingelesez ez jakitearen pena duela, askoz gehiago gozatuko zukeelako eta lagun gehiago egingo zituztekeelako. "Hala ere, jende asko ezagutu dut bidean, eta lagun oso onak egin ditut. Batez ere bi katalan aipatuko nituzke; haiekin, gerora, Europan barrena bidaiatu dut, eta Donejakue bidea beste bitan ere egin dugu".



URTEROKO ERROMESALDI PARTIKULARRA

Justo Dominguezek aspalditik zuen Donejakue bidea egiteko gogoia, eta erretiroa hartzean ikusi zuen horretako aukera. Harrezkero, zazpitan egin du, baina ez beti bide bera. "Sekulako esperientzia" dela dio, "behin behintzat bizi beharrekoa". Bideko gorabeheraz jardun du, eta gomendioak eman ditu.



Bideko egunerokoa beti antzekoa izaten dela esan du. "20-35 kilometroko etapak izaten dira, sei edo zazpi orduetan egiteko modukoak, eta goizean goiz ekiten diogu bideari, 07:00ak aldera". Dominguezen esanetan, "Donejakue bidea egiteko ez dago atleta izan beharrik, baina sasoko egoteak laguntzen du". Ziurtatu du gogorrenak aurreneko egunak izaten direla, "gorputza egokitu artekoak", eta bitartean horretan garrantzitsua izaten dela "buruz indartsu" egotea. Hori bai, kontuan izan beharreko ezinbesteko batzuk aipatu ditu: oinetako eta galtzerdi egokiak eramatea, oinak egunero hidra-

tatzea eta bidea norbere erritmoa egitea. Izan ere, "hanketan baba batzuk izatea ohikoa den arren, gorputza gehiegi beharrezak giharretako gailak eragin ditzake, eta gailak batek etxera bidaltzeko".

Bidea egiteko urte sasoirik egokienak zeintzuk diren galdetuta, "udaberria eta udazkena" erantzun du: "Bero handiegia zein eguraldi oso txarra saihestearren diot hori, bestela ere nahiko gogorra egin baitaiteke bidea". Bide batzuk besteak baino gehiago, gainera. Dominguezentzat Sevillatik (Espainia) abiatzen den Via de la Plata da denetan gogorrena. "43 etapa dira, batzuk

oso luzeak, bero handia egin dezake, eta bideko azpiegitura eta seinalizazioa eskasak dira. Hori egitea nire bizitzako esperientzia indartsuenetakoa bat izan da".

Frantses bidea, ezagunena, bitan egin du; Oviedotik (Espainia) hasten den Primitiboa, beste bitan; Portugesa, Ponte de Limatik (Portugal) hasita, beste bitan; eta oraintxe bukatu du, lehenengoz, Ferroletik (Espainia) hasten den Ingeles bidea. "Denek gomendatuko nieke bizitzan behin egitea, batez ere, arazoren bat dutenei; esaterako, errutinak gain hartuta dabilzaneiei. Sekulako esperientzia da". ■

"GUSTUKO LANA NUEN, ETA, GAINERA, LEKU PILA BAT EZAGUTU NITUEN"

Jon Urbieto
ANIMATZAILEA



Bidaiatzea gogoko izan arren, denek ez dute horretarako modurik. Horientzat aukera bat izan daiteke lan eginez bidaiatzea. Jon Urbietak (Zumaia, 1988) badaki zerbait horretaz, hiru uda pasatu baitzituen gurutzaontzi bateko animatzaile lanetan. Lehen egunak gogorak egin zitzaizkiola aitortu arren, garai haien oroitzapen "oso onak" ditu, eta ez du baztertzen noizbait bueltatzeko aukera.

Nolatan hasi zinen gurutzaontzi batean lanean?

2017ko otsaila zen, eta denboraldi berrirako jende bila ari zirela esan zidan gurutzaontzietan lanean zebilen lagun batek. Zumaiatik ezagutzen ninduen, bazekien telebistan-eta gauzak egin-da nengoela, eta profil aproposa izan nezakeela pentsatu zuen. Elkarrizketa egin zidaten, eta 2017ko maiatzean hasi nintzen lanean.

Zenbat denboraz ibili zinen lan horretan?

Denboraldia maiatzaren erdialdean hasten zen eta urriaren erdialdera bukatu, eta hiru urte egin nituen. Denboraldiak irauten zuen bost hilabeteetan, bi asteko oporraldia izaten nuen, eta hori aprobetxatzen nuen etxera etorri eta atsedean pixka bat hartzeko. Gainontzean, egunero-egunero lan egiten genuen, jaiegunik gabe.

Animatzailea zinen zu. Zehazki, zer egiten zenuen?

Oheratzen azkena eta jaikitzen aurrena izaten nintzen. Goizean goiz ekiten nion egunari, jattetxeko sarreran egon behar izaten bainuen, irribarrez, denei egun onak ematen. Gero, egunaren arabera izaten zen; adibidez, hiri bat bisitatzea tokatzen bazen, hango pertsonairen batez mozorrotzen nintzen, eta antzerki pixka bat egiten nuen. Gauetan, berriz, bidaiariak entretenitu behar izaten nituen, denetarik an-

tolatuta: jokoak, karaokea, bingoa... Bidaiariak aireportuan jaso, itsasontzira eraman eta haiei bueltan aireportura laguntzeaz ere arduratzen nintzen, beste hiru lagunekin batera.

Nola gogoratzen dituzu garai haiek?

Garai politikak izan ziren, baina hasiera oso gogorra egin zitzaidan; bigarren astean etxera bueltatzeko zorian egon nintzen.

Leku asko ezagutzeko aukera izango zenuen...

Enpresak lau gurutzaontzi zituen, eta hirutan ibili nintzen lanean. Astebeteko ibilaldiak izaten ziren, Amsterdam (Herbehereak) eta Bruselas (Belgika) artean bata, Estrasburgotik (Frantzia) Koloniara (Alemania) bestea, eta Danubio ibaian barrena hirugarrena. Tartean, geldialdi ugari egiten genituen.

Zein leku gustatu zitzaizun gehien?

Bakarra aukeratzekotan, Bratislava (Eslovakia).

Anekdotak pila bat ere izango dituzu...

Anekdotak ez dakit den, baina nire kamaroteak bazar txinatar bat ematen zuen: mozorroak, neure arropak, eskulanak egiteko materiala... denetarik zegoen han.

Lan eginez bidaiatzea aukera ona al da?

Nik gozatu egin nuen. Gustuko lana nuen, ondo pasatzen nuen, eta, gainera, leku pila bat ezagutzeko aukera izan nuen. ■

"Nire kamaroteak bazar txinatar bat ematen zuen: mozorroak, neure arropak, eskulanak egiteko materiala... denetarik zegoen"

OCCHI DI FARFALLA, BIDAIATZEKO SORTUA

Occhi Di Farfalla musika taldea 2013an sortu zuten Miren Arangurenek (Iruñea, 1981) eta Hodei Estebanek (Zarautz, 1983), "furgonetan errepidea erretzeko" helburuarekin. Musikak lagunduta, kilometroak egin nahi zituzten, hara eta hona ibili, toki berriak eta jendea ezagutu. Eta halaxe egin zuten, pandemiak mundua gelditu zuen arte. Europan barrena seigarren birari ekiteko puntu-puntu zeuden orduan.

Bi urte geroago, puntu hartantxe daude berriz ere: Europara seigarren bidaia hasteko zorian; oraingoan, *Iraun* lan berria eskuartean dutela. Uztailaren 7an abiatuko dira Zarautzik, eta hamar egunez, hainbat kontzertu emango dituzten Frantzian, Herbehereetan, Alemanian eta Txekian.

Aurtengo biraren nondik norakoak jakin nahi badituzue, ez galdu Udako GUKA saio bereziak: ostiralero, 22:00etan, Erlo TBn eta Baleikeren, Karkararen, Maxixatzenen, Uztarriaren eta Zarauzko Hitzaren webguneetan. ■



BEGIEN BISTAKOAZ GOZATZEKO PLANAK

Udan Euskal Herrian gelditzen direnei zein bisitan datozenei primerako planak eskaintzen dizkie Begi Bistanek, eta horietako bi nabarmendu ditu Naiara Malave arduradunak: bata, Oria ibaiaren jaitsiera; eta bestea, Elkanoren Talaia izenburupean Zumaia eta Orio artean martxan jarri berri dituzten itsas zeharkaldi gidatuak.

Malaveren hitzetan, Oria ibaia "oso lasaia" da itsasoratu aurreko kilometroetan, "leku ezin hobea uretako kirolak probatzeko zein praktikatzeko". Eta ez hori bakarrik: "Errioaren ertzetan ez dago industriarik, oso ingurune naturala da, Euskal Herrian gutxi bezalakoa". Hori baliatuz, Begi Bistanek errioan behera zortzi kilometroko ibilaldia egiteko aukera eskaintzen die herritarrei, kayak bikoitzetan zein stand up paddlean.

Zailtasun baxuko jarduera da, edozeinek egiteko modukoa, haurdunek eta lesioaren bat dutenek izan ezik. Igeri egiten jakitea da eskatzen duten gauza bakarra. "Familiak, lagun taldeak, bikoteak... denetarik izaten dugu, eta gozatu egiten dute". Izan ere, bezeroen beharretara egokitzeko gaitasuna dute. "Adibidez, bi ume dituen familia batek bi kayak bikoitz har ditzake, eta kayak bakoitzean heldu bana eta ume bana sartu, edo batean heldu bat bi umerekin eta bestean bigarren heldua bakarrik". Eta adina ere ez da oztopoa: "Urtero etortzen da 65-80 urte bitarteko lagun talde bat, eta ederki pasatzen dute".

Jaitsiera egin nahi dutenek bi gauza egin behar dituzte: webgunearen bidez erreserba egin, eta aukeratutako ordurako Orioko Arraunetxera azaldu, Begi Bistanek han baitu egoitza. "Trasteak Arraunetxan utzi eta furgonetaz Aginagako Txokoaldera joaten gara, uretaratzeko". Material guztia beraiek jartzen dute.

Jaitsieraz gain, errioan beste hainbat jarduera gauzatzeko aukera ere eskaintzen du Begi Bistanek: Arraunpotea; batelen, trainerilen, traineruen, kayaken eta stand up paddle taulen alokairua; eta abar.

Elkanoren Talaia

Beste plan bat izan daiteke Zumaia, Getaria eta Orio itsasontziz elkartzen dituen Elkanoren Talaia egitasmoan parte hartzea. "Elkano aitzakia gisa hartu dugu, hark ordezkutzen duena herriratzeko: zergatik izan ziren euskaldunak munduari bira ematen aurrenak, itsasoaz horrenbesteko ezagutza nolatan zeukaten, zer egiten zuten garaia hartan Sevillan, nola prestatu zuten mundu bira, bidaiako gorabeherak...".

Asteazkenero eta igandero egiten dituzte zeharkaldiak, marearen arabera, eta ibilbidea zatika egitea da Malaveren proposamena: "Plan bat izan daiteke Zumaiaetik Getariara itsasoz joatea, han jaitsi eta herriaz gozatzea, eta autobusean itzultzea". 45 minutuko itsasldiak dira herri batetik besterakoak; buelta guztia segidan egitera, hiru ordukoak.

Kanpotarrentzat ez ezik, bertakoentzat ere plan interesgarria dela uste du: "Egunerokoa ez gara jabetzen gure herrietan ditugun altxorrez, eta horiek ezagutarazi nahi ditugu, horrela hobeto zainduko ditugulako". ■




Ordutegiak eta erreserbak

Oriaren jaitsieraren, Elkanoren Talaia zeharkaldiaren eta Begi Bistanek eskaintzen dituen gainontzeko zerbitzuen inguruko informazio guztia –ordutegiak, prezioak eta abar– eta erreserbak egiteko aukera, *Begi-bistan.com* webgunean.

HAMAIKA PLAN

UROLA ERDIAN EGITEKO

Familian, lagunekin, naturan edota bizikletan izan, hamaika aukera dituzu uda honetan Urola Erdian egiteko. Ezagutzen ez zenituen altxorak deskubritzeko aukera ugari dituzu. Ezagutu nahi? Sartu www.urolaturismoa.eus webgunean, eta ezagutu aukera guztiak!



ALTXORRAK PAUSO BATERA



HAURREKIN



INAZIOTAR BIDEA



MENDI IBILIAK IZARRAITZEN



TALDEAN



UROLAKO BIDE BERDEA BIZIKLETAZ

urola
TURISMOA



EUSKADI
BASQUE COUNTRY
#BasqueExperience

ESKUALDEKO TURISMO BULEGOA
Loiola auzoa (Santutegi aurrean), Azpeitia
943-15 18 78
i-loiola@urolaturismoa.eus
www.urolaturismoa.eus



FLIST

BALENTZIAGAREN SEKRETUA

Cristobal Balentziaga hil zela 50 urte dira aurten, eta Fernando Alberdi izozkigileak omenaldia egin nahi izan dio Getariaren izena eta izana lau haizetara zabaldu zituen jostun ospetsuari. Haren postre gogokoenetatik abiatuta, izozki zapore berria sortu du: Flist. "Azkoitian 'flist' erabiltzen dute zerbait apaina eta dotorea dela esateko, eta amaren eta Azkoitiko herriaren omenez jarri diot izen hori".

Fernando Alberdi (Azpeitia, 1976) izozkigileak aspalditik zerabilen buruan Cristobal Balentziagari omenaldi txiki bat egiteko ideia, eta azkenean, gauzatu du, berak ondoen dakien moduan. Izozki zapore berri bat sortu du, Flist, Getariako jostun ospetsuaren postre gogokoenak inspirazio iturri hartuta: arroz esnea eta masusta azukreztatutak. "Arroz esnezko oinarri krematsuari masustak eta masusta marmelada botako dizkiogu, baita errubi txokolatea ere. Txokolata horrek arrosa kolorea du, Balentziagaren kolore fetitxea; eta zitriko eta fruta ukituak ematen dizkio izozkiari".

Flist sortzea "lan nekeza" izan dela aitortu du Alberdik, ez izozkia egiteak eman dion lanagatik, baizik eta Balentziagari buruzko informazio pertsonal oso gutxi dagoe-lako argitaratuta. "Bizitza guztian elkarrizketa bakarra eman zuen, eta modaz bakarrik hitz egin zuen han". Baina hiru urteko ikerketa lanak fruituak

eman ditu, eta hori da Flist, Balentziagaren sekretua.

Izozkiari izena jartzerakoan, berriz, Alberdik bere ama, Azkoitiko familia eta, oro har, Azkoitiko herria izan ditu gogoan. "Azkoitian *flist* hitza erabiltzen dute zerbait apaina eta dotorea dela esateko. Gure amari ere asko gustatzen zitzaizkion moda eta joskintza, eta izozki honi Flist deitzea amari, Maritxu Mikeleteneko familia guztiari eta Azkoitiari omenaldia egiteko modu polita irudituzait". Probatu nahi duenak Getariako Kale Nagusiko Dona Doni izozki dendan du aukera. ■



Munduko lehiaketa

1. UKTko bazkide eta harpideentzat

2. Bidali erantzunak posta elektronikoz **lehiaketa@ukt.eus** helbidera, ondorengo datuekin:
izen-abizenak, NAN zenbakia eta telefono zenbakia

3. **Saria:** Begi Bistaneko 2 bono

1. Zein herrialdeetakoak dira bandera hauek?



1. Irlanda
2. Boli Kosta
3. India



1. Norvegia
2. Danimarka
3. Finlandia



1. Kiribati
2. Antigua eta Barbuda
3. Mikronesia



1. Indonesia
2. Herbehereak
3. Polonia



1. Nigeria
2. Uganda
3. Niger



1. Costa Rica
2. Bostwana
3. Thailandia



1. Italia
2. Mexiko
3. Bulgaria



1. Kazakhstan
2. Kanbodia
3. Singapur



1. Errumania
2. Txad
3. Andorra

Amestoi

Bisita gidatuak upategira
Dastatze gela
Terraza eta behatokia

Dastatu eta gozatu

ITSASOARI BEGIRA DAGOEN UPATEGIA • www.txakoliameztoi.com • 943 14 09 18


2. Zein kontinentetan ateratu dira argazki hauek?



Ipar Amerika



Hego Amerika



Afrika



Europa



Asia





UDAKO SAIO BEREZIAK

UZTAILETIK ITRAILERA OSTIRALERO, 22:00ETAN

ERLO TELEBISTAN ETA MAXIXATZEN, UZTARRIA, BALEIKE, KARKARA,
ZARAUZ'KOHITZA ETA UROLAKOSTAKOHITZA WEBGUNEETAN

HAS GAITEZEN GUKA!

